



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko abenduaren 2a

139. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legea betetzeari eta garatzeari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak aurkeztu du (2. or.).
- Interpelazioa, lan-merkatuko berdintasunaren arloko eta soldata-arrakalaren aurkako borrokaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da kalitatezko arreta sozio-sanitarioa berma diezaien gaixotasun mental larria duten pertsoneri, eta arreta hori zerbitzu publikoek emateari eman dakion lehentasuna. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunari dagozkion aparteko funtsak jasotzea Nafarroak. Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez gobernuak premiatzen dira dei egin dezaten Kolonbian gatazka behin betiko amaitzeko Akordioaren alderdi guztiak oso-osorik ezartzera. Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arreta eta zaintza integrala hobetu dezan. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko urratsak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin lankidetzaz hitzarmen bat sinatzeko, AHTa garatzeko lankidetzaz jardute aldera. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez Osasun Departamentua premiatzen da plan estrategiko bat abiaraz dezan Nafarroan iktusaren arretari ekiteko, iktus pediatrikoaren kodea barne, eta 2022ko Osasun Planari gehitzeko. Osoko Bilkuran izapidetzea (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hiesaren Mundu Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legea betetzeari eta garatzeari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legea betetzeari eta garatzeari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako José Suárez

Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena:

Nafarroako Poliziei buruzko 23/2018 Foru Legea 2018ko azaroaren 19an sartu zen indarrean.

Besteak beste, legea indarrean sartu eta urtebeteko epean erregelamendu bidez garatu behar zela xedatzen du.

Horrenbestez, ezarritako epe bi urte igaro direnez, Nafarroako Gobernuari honako interpelazio hau egiten diogu, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen betetzearen eta garapenaren ildo nagusiak azal ditzan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Interpelazioa, lan-merkatuko berdintasunaren arloko eta soldata-arrakalaren aurkako borrokaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko interpelazioa, lan-merkatuko berdintasunaren arloko eta soldata-arrakalaren aurkako borrokaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpe-lazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Lan-merkatuko berdintasunaren arloko eta Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-sareko soldata-arrakalaren aurkako borrokaren arloko politika orokorra.

Iruñean, 2021eko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da kalitatezko arreta sozio-sanitarioa berma diezaien gaixotasun mental larria duten pertsoneri, eta arreta hori zerbitzu publikoek emateari eman dakion lehentasuna.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kalitatezko arreta sozio-sanitarioa berma diezaien gaixotasun mental larria duten pertsoneri, eta arreta hori zerbitzu publikoek emateari eman dakion lehentasuna.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Kontuen Ganberak egindako auditorian eta Osasun Mentalari buruzko 2019tik 2023ra bitarteko Plan Estrategikoan honako hau jasotzen da:

Handitu egin da eskaria etxe-egoitzetan, zaintzapeko etxebizitzetan eta gainbegiratuetan, bai eta etxebizitza laguntzadunetan ere –eta, halere, ez da izan plazen gehikuntza nabaririk baliabide horietan eskari horri aurre egiteko–, eta orobat handitu dira, nabarmen handitu ere, zerbitzuari atxikitako prestazio ekonomikoekiko plazak.

Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza laguntzadunen baliabideetan, etxe-egoitzetan, errehabilitazio psikosozialeko zentroetan eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako esku-hartze soziokomunitarioko zerbitzuan hitzartu/kontratatu-tako plazak ez dira ia aldatu 2014tik 2019ra bitarte. Gehikuntza, zenbaki absolututan, zaintzapeko etxebizitzetan eta etxebizitza gainbegiratuetan izan da.

Aldaketa adierazgarriena ZLPetan gertatu da (prestazio horiek salbuespenezkoak izan behar dute), zerbitzua eskuratzeko nahiko baliabiderik ez eta haren ordeztasun ekonomikoa ematen den baliabide guztietan. Hala, ZLPa duten GMEL plazak 2014an 74 izan ziren eta 2019an 128; zaintzapeko etxebizitzetakoak, 2014an lau eta 2019an 22; eta etxebizitza gainbegiratu-takoak, 2014an bat ere ez eta 2019an 39.

Baliabide sozial eta soziosanitarioak urriak dira, baliabide horietara iristeko itzarote-zerrende-i eta ZLPen gehikuntzari erreparatuta, nahiz eta Neuropsikiatriako Espainiako Agentziak ezarritako kalitate-estandarrek bete GMEL eta EPSZ baliabi-deetan.

Hona amaieran ageri zen ondorioa:

Gaixotasun mental larria duten pertsonentzako baliabide soziosanitarioak ez dira aski; plazen defizit nabarmena dago, eta zerbitzuari loturiko prestazioak emanez berdintzen ari da.

Eta hona gomendioak:

Baliabide soziosanitarioen eskaintza handitzea gaixotasun mental larria duten pertsonak artatzeko, eta baliabide nahikorik ezean zerbitzuak esku-ratzeko ZLPen banaketa mugatzea, izatez salbuespenezko prestazioak baitira.

Une honetan oso urriak dira eskari horri erantzuteko baliabide publikoak, eta joera da gero eta urriagoak izatea, San Frantzisko Xabierkoa zentroko egoitza unitateetan esaterako. Nahasmendu mentala duten pertsonak artatzeko unitate soziosanitarioak dira, bi artatze-modalitatetakoak: egoitza psikiatriko lagundua eta egoitza psiko-geriatriko lagundua. 2018ko abuztuan, 88 plaza zeuden okupatuta: psikogeriatriako 31 eta gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza laguntzaduneko 57. Zoritxarrez, egoiliarren kopuruak

behera egiten jarraitu du, halako moduan non une honetan 68 besterik ez baitira.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kalitatezko arreta soziosanitarioa berma diezaien gaixotasun mental larria duten pertsonen, eta arreta hori ahal dela zerbitzu publikoek eman dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du San Frantzisko Xabierkoa zentroaren etorkizuna berma dezan –Nafarroako Gobernuak zuzenean kudeatutako zentro komunitario publiko gisa– eta San Frantzisko Xabierkoa zentroren egoitza-plazak arian-arian handitu ditzan, instalazioek onartzen duten gehienekora iritsi arte (177 pertsona).

Iruñean, 2021eko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunari dagozkion aparteko funtsak jasotzea Nafarroak.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuari eska diezaion Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunari dagozkion aparteko funtsak jasotzea Nafarroak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kidea izan eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarenak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunari dagozkion aparteko funtsak jasotzea Nafarroak.

Zioen azalpena

2020ko maiatzean, Nafarroako Gobernuak iragarri zuen Estatuari erreklamatu diola genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunari dagozkion aparteko funtsak jasotzea Nafarroak.

Orobat adierazi zuen balorazio positiboa egin zuela Berdintasun Ministerioak hartutako konpromisoa dela-eta, zeinaren arabera Nafarroak genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunari dagozkion aparteko funtsak jasoko bailituzke, hori negoziatu

eta adostu eginen zutela bi aldeek Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordean eta funts horien banaketa batzordearen hurrengo bilkuran aztertuko zela.

Eta hau ere bai: Nafarroako Gobernuak bai legegintzaldi honetan bai honen aurrekoan ere aldeztu duen irizpidea izan dela Nafarroak, funtsak aparteko izaerakoak diren aldetik, horiek eskuratzeko eskubidea duela.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Espainiako Gobernuari eska diezaion Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunari dagozkion aparteko funtsak jasotzea Nafarroak, eta hori atzeraeraginez egin dadila.

Nafarroan, 2021eko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Mozioa. Horren bidez gobernuak premiatzen dira dei egin dezaten Kolonbian gatazka behin betiko amaitzeko Akordioaren alderdi guztiak oso-oso-oso erabazteko.

GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez gobernuak premiatzen baitira dei egin dezaten Kolonbian gatazka behin betiko amaitzeko Akordioaren alderdi guztiak oso-oso-oso erabazteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, 2021eko abenduaren 9ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Azaroaren 24an bost urte bete ziren Kolonbiako Gobernuak eta Indar Armatu Iraultzaileek Kolonbian gatazka behin betiko amaitzeko Akordioa sinatu zutenetik Bogotan. Akordioari esker, amaitutzat eman zen berrogeita hamar urte baino gehiago luzatu zen barne-gatazka armatua, bederatzita milioi biktima inguru eragin zituen.

Kolonbiako Akordioa sinatu izanak esperantzaz bete zuen Kolonbia, bai eta mundu guztia ere. Hilabete gutxitan, drastikoki jaitsi ziren indarkeria-tasak, bakearen eta justizia sozialaren printzipioetan oinarritutako gizarte berri baten oinarriak ezartzen zituen prozesuarekiko herritarren konfiantza indarrez hazi bidenabar.

Esperantza hura, halere, laster hasi zen itzaltzen eta galtzen. Kolonbiako ondoz ondoko Gobernuak bata bestearen atzetik izoztu edo geroratu zituzten akordio haren ardatzak. Halatan, Nekazaritzaren Erreforma Integrala alde batera utzi zen zeharo, hainbeste non adostutakoaren % 3 ere ez baita gaur arte bete; lurren itzulketa ia ezdeusa izan da indarrez lekualdatutako nekazarien, indigenen eta jatorri afrikarrekoen kasuan; bazter utzi dira labore ez-zilegiak ordeztzeko alternatiba jasangarriak; eta ahantzi egin da borrokalaria ohiak bizitza sozialera batzera bideratutako proiektuen aldepena. Ondorioz, Kolonbiako herri indigenen bazterketa historikoa betikotu eta are larriagotu egin da; izan ere, berriz ere jazarpena

jasaten ari dira usurpatutako lurak erreklamatzeko dituzten buruzagiak, inpunitate-giro erabatekoan. Genero-ikuspegiaren arloan ere –eta batik bat LGTBI kolektiboei dagokienez–, akordioan jasotakoaren % 20a iristen da ozta-ozta ezarritakoa; hortaz, horiek denek paramilitarren nahiz bestelako talde armatuen helbururik gogokoena izaten jarraitzen dute. 2016az gero, giza eskubideen aldeko 176 emakume buruzagi erail dituzte.

Indarkeria-giroa urtez urte areagotuz joan da, Akordia sinatu aurreko indarkeria-tasak gainditu arte areagotu ere, legez kanpoko talde armatuen goraldiagatik –berezik, neoparamilitarrena–, bereziki buruzagi sozialen kasuan giza eskubideak urratzeagatik, bizitza soziala gero eta militarizatuagoa egoteagatik eta Indar Publikoak errepresio gero eta bortitzagoa baliatzeagatik herritarren erreibindikazioei aurre egiteko. Bake Akordia sinatu zenez geroztik 1.267 buruzagi sozial eta giza eskubideen defendatzaile erail dituzte, eta gizarteratze-prozesuan zeuden 292 borrokalari ohi ere bai. 2021ean, gaur arte, 293 biktima eragin dituzten 87 sarraski dokumentatu dira. Lanuzte Nazionala egin den asteetan 80 pertsona erail dituzte, eta gutxienez ere 28 emakume izan dira sexu-indarkeriaren biktima.

Kaos horren atzean dauden arrazoiak, finean, ez dira soilik legez kanpo diharduten pertsonak, bere kabuz dihardutenak, bakean bizi nahi baldin badu Kolonbiak lehenbailehen konpondu beharreko egiturazko faktoreak ere bai baitaude. Horien artean, honako hauek nabarmendu beharra dago: Kolonbiako parekotasun sozialik eza ohiz kanpoko izatea; bazterketa sozial eta politikoa; lurren espoliazioa eta berrantolamendua, eta enpresa transnasionalek lurraldeen nahiz lurralde horietan bizi diren erkidegoen kasuan baliatzen dituzten jokabide suntsitzaileak.

Bidegabekeria sozialeko faktore horiek gaintzen laguntzen dute, modu erabakigarrian lagundu ere, gutxienez ere hasierako fase batean, 2016ko Bake Akordioek, zeinen helburu nagusia baita egiarako, justiziarako, erreparaziorako eta errepikapenik ezerako sistema integral bat sendotzea.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak gobernuak premiatzen ditu, akordia sinatu zenetik bost urte joan diren honetan, dei egin dezaten Kolonbian gatazka behin betiko amaitzeko Akordioaren alderdi guztiak oso-osorik ezartzera, han bake justu eta iraunkorra egon ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuak gobernuak premiatzen ditu duda-mudarik gabeko babesa eman diezaioten bake prozesuari eta, bereziki, egiarako, justiziarako, erreparaziorako eta errepikapenik ezerako sistema integralari, zeinen parte baitira Egia Argitzeko Batzordea, Bake Jurisdikzio Berezia eta Desagertutzat emandako Pertsonak bilatzeko Unitatea.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Europar Batasuna premiatzen ditu balio demokratikoak interes ekonomiko pribatuen gainetik jar ditzaten eta, hartara, jarrera proaktibagoa har dezaten eta beren ahalmen diplomatiko guztia balia dezaten Kolonbiako Gobernuaren aitzinean, Bake Prozesurako oztokoak desagerrazteko.

4. Nafarroako Parlamentuak Kolonbiako Gobernu premiatzen du Nazio Askapenerako Armadarekiko elkarrizketak berrabiaraz ditzan, gatazkari konponbide negoziatu eta behin betikoa emateko, bai eta indarrean dauden talde paramilitarrak desegiteko neurri eraginkorrak har ditzan ere.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Europar Batasuna premiatzen ditu Kolonbian 2022an egin beharreko hauteskunde-prozesuetako nazioarteko begiraleen jardunean inplika dadin, botoen erosketa masiboa –giza eskubideen zenbait erakundek jada salatzen ari direna– eragozteko eta ezagutarazteko.

Iruñean, 2021eko azaroaren 25ean

Foru parlamentariak: Blanca Regúlez Álvarez, Arantza Izurdiaga Osinaga, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arreta eta zaintza integrala hobetu dezan.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arreta eta zaintza integrala hobetu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arreta eta zaintza integrala hobetu dezan.

Zioen azalpena

Alboko esklerosi amiotrofikoa garun eta bizkarrezur-muineko neuronen endekapenezko gaixotasun bat da.

Intzidentzia handiagoa da 45-65 urte arteko pertsonen artean, zailtasunak daude gaixotasuna identifikatzeko eta diagnostiko goiztiarra egiteko, biziraupena 3tik 5 urtera bitartekoa da sintomak hasten direnetik, nabarmen baldintzatzen du bizikaltatea, eta inpaktua handia da osasun, gizarte eta ekonomia arloan kaltetuendako eta haien familiendako.

Gaixotasunak ahulezia eta muskulu-atrofia progresiboa eragiten du, arnas-muskulaturari eta irenketarekin lotutako muskulaturari ere erasaten die –hortaz, gaixoei arnasa hartzeko zailtasuna

izaten dute–, eta, hori dela-eta, beharrezkoak izaten dira balorazio eta tratamendu nutrizionala.

Beharizan handia izaten dute errehabilitazio, logopedia eta terapia okupazionalari dagokienez, eta beharizan hori kronikoa da gaixotasunaren prozesu guztian zehar.

Beharizana handia izan ohi da, orobat, zaintzari, laguntza teknikoari nahiz etxebizitzak egokitzeari dagokienez, eta horrek kostu handia dakar pertsona horientzat eta beren familientzat.

2018an, kronikoen estrategiaren baitan, alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arreta integratu eta integrarean hobekuntza dakarren dokumentu bat prestatu zuen Nafarroako Gobernua. Aitortza handia merezi izan zuen osasunaren arloko profesionalak nahiz kaltetuen eta familien zaintzan laguntzen duten elkarteek egiten duten aparteko lanak. Estrategia horretako zenbait neurri, baina, ez dira gaur egun bermatzen ari.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du besterik gabe bete ditzan Nafarroako gaixo kroniko eta pluripatologikozko Arreta Integratuko Estrategiaren baitan alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arretarako dokumentuan jasotako prestazio eta konpromiso guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsonentzako errehabilitazio integral eta unibertsala berma dezan gehienez ere sei hilabeteko epean, % 100eko finantzaketa publikoarekin, gaixotasunaren prozesu osoan zehar, etxeko nahiz egoitzako errehabilitazio integralaren modalitateak barne.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsona guztien mendekotasun- eta desgaitasun-mailaren berehalako balorazioa egiten dela berma dezan, eta maila horren berrikuspena egin dezan gehienez ere hiru hilabeteko epean.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berma dezan finantzaketa publikoa ematen dela teknika aurreratuko

laguntzetarako, aireztapen egokiko sistema alternatiboetarako, garabi, ohe artikulatu, eskaren aurkako koltxoi, komuneko aulki beso-euskarridun eta komunikazio-gailu alternatibo eta handigarrietarako, begi-irakurgailuetarako edo alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsonen bizikalitatea errazteko bestelako premia batzuetarako, berariazko zirkuitu eta guzti alboko esklerosi amiotrofikoa duen inork ez dezan zailtasunik eduki laguntza horiek eskuratzeko gastuak itzultzeko atzerapenak direla-eta. Neurri hori sei hilabetean bermatu beharko da.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du diru publikoarekin finantzatu ditzan, sei hilabeteko epean gehienez ere, alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa

duten pertsonentzako etxebizitzak eta ibilgailuak egokitzeko eta aldi baterako etxebizitza eta ibilgailu egokituak eskuratzeko laguntzak.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plazak berma ditzan egoitza-zentroetan pertsona kaltetuak etxean egon ezin direnean, bermatuta langileak alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsonak zaintzeko prestakuntza eta eskarmentua dutenak direla.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zaintzaileei babesa eta prestakuntza-neurriak berma diezazkien.

Iruñean, 2021eko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko urratsak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin lankidetzaren bat sinatzeko, AHTa garatzeko lankidetzan jardute aldera.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko urratsak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin lankidetzaren bat sinatzeko, AHTa garatzeko lankidetzan jardute aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Abiadura Handiko Trena salgaien nahiz pertsonen garraio-komunikazioak hobetzen laguntzen duen azpiegitura bat da: garapen ekonomiko handiagoa ematen dio azpiegitura hori duenari, lurraldea egituratzen du eta modernitate-irudi bat nahiz kanpora begirako irudi bat ematen du.

Nafarroarentzat, Abiadura Handiko Trenak izan behar du –eta izan hala da– Europan zeharreko oinarritzko sare bat, Europak aitortu eta saritua, Frantziatik eta, horrenbestez, Europako gainontzeko trenbide-komunikazioetatik hurbil egoteagatik; hortaz, lehenetsi beharrekoa da, Espainiako beste batzuen aldean.

2019ko abenduan, Nafarroako Parlamentuak, Navarra Sumaren ekimenez eta PSNren eta Geroa Bairen aldeko botoekin, lau puntuko honako mozio hau onetsi zuen: Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko urratsak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin hitzarmen bat sinatzeko, helburu izan den AHTaren garapenean lankidetzan aritzea obrak azkartzeko; Nafarroako hurbileko/aldieretako trenbide-sistema hobetzeko

jarduketak egin ditzan, trena erregio barneko distantzia ertaineko garraiobide gisa erabil dadin sustatzeko; Espainiako Gobernuarekin batera lan egin dezan, Aragoiko autonomia erkidegoan izapidetze administratiboa eta obren lizitazioa azkartzeko, jarraitutasuna eman ahal izan dakien Nafarroan egiten ari diren AHTaren obrei; Espainiako Gobernuarekin lankidetzan aritu dadin AHTaren komunikaziorik onenaren eta azkarrenaren proiektua idazteko eta betetzeko, gure erkidegoan euskal Y-arekin lotzeko; eta lehentasuna eman diezaie Foru Komunitateko trenbide-komunikazioak –aldirietakoak nahiz abiadura handikoak– sustatzeko, hobetzeko eta azkartzeko jarduketa gutzietan.

Halere, ia bi urte geroago, ez da inolako urratsik egin mozio horren edukia betetzeko, eta bete gabe utzi da Nafarroako Parlamentuaren gehiengoaren borondatea, AHTa Nafarroara berehala iristearen aldekoa.

Aurreko legegintzaldian erantzunik eman ez izana eta legegintzaldi honetan proiektua geraturik gelditu izana ezin da oztupo izan nafarrek azpiegitura horren garapen azkarra areagotzeko eta ziurtatzeko; hartara, oinarritzko azpiegitura bat, interes orokorreko obra bat, gozatzen ahalko dute, zeina ezinbestekoa baita Foru Komunitatearen lehiakortasuna hobetzeko eta Europarekiko nahiz Espainiako gainontzeko lurraldeekiko konektibitatea hobetzeko.

Horregatik, gaur egun are beharrezkoagoa da Nafarroako Gobernuak apustu irmoa egitea AHTa azkartzeko eta ziurtatzeko; izan ere, Nafarroa estrategikoki kokatuta dago, Kantauri itsasotik Mediterraneorako ardatzaren erdian eta Pirinioetako mugatik gertu baitago. Bidaiarientzako eta salgaientzako abiadura handiak indartsuago eginen gaitu, eta European erreferentziako erregio bihurtuko gaitu. Foru erkidego osoak aterako dio etekina enplegua sortzeko iturri horri, bai obra egiten denean, bai eta korridorea funtzionamenduan

sartzen denean eta ezartzen diren hazkunde logistikoekin ere.

AHTa Espainiako Gobernuaren eskumena bada ere, egia da orobat garrantzitsua izanen litzatekeela Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak hitzarmen bat sinatzea lankidetzan hobetzeko eta, horrenbestez, obran parte-hartzeko zuzena edukita, obra azkarrago egin dadin laguntzeko.

Aldirietako nahiz hurbileko trenbide-komunikazioek pertsonen eta salgaien mugikortasuna hobetzen laguntzen dute; horrenbestez, Nafarroan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea eta Nafarroan kokatuta dauden enpresen tokiko ekonomia hobetzen laguntzen dute; hartara, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuaren sarerik onena eta modernoenaz izateaz arduratu dadin.

Era berean, ezinbestekoa da al bait lasterren idaztea AHTa Iruñera iristeko behar den proiektua eta hura eraikitzeko izapideak hastea.

Horregatik guztiagatik:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du egin beharreko urratsak egin ditzan Sustapen Ministerioaren eta ADIFen bitartez Espainiako Gobernuarekin hitzarmen bat sinatzeko, helburu izanen duena AHTaren garapenean lankidetzan aritzea obrak azkartzeko eta Nafarroa sartzeko Mediterraneotik Kantauri itsasorainoko trenbide-korridorean, nazioarteko estandarrekin, nazioarteko zabaleradun bide bikoitzarekin eta bidaiari nahiz salgaietarako erabilerarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du al bait lasterren idatz dezan Iruñeko geltoki berrirako proiektua eta, halaber, al bait lasterren has ditzan hura eraikitzeko izapideak.

Iruñean, 2021eko azaroaren 25ean

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

Mozioa. Horren bidez Osasun Departamentua premiatzen da plan estrategiko bat abiaraz dezan Nafarroan iktusaren arretari ekiteko, iktus pediatrikoaren kodea barne, eta 2022ko Osasun Planari gehitzeko.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Legebiltzarraren Osoko Bilkuran izapidetu dadin Patricia Fanlo Mateo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita plan estrategiko bat abiaraz dezan Nafarroan iktusaren arretari ekite-

ko, iktus pediatrikoaren kodea barne, eta 2022ko Osasun Planari gehitzeko. Mozioa 2021eko azaroaren 26ko 137. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/MOC-00165).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hiesaren Mundu Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Hiesaren Mundu Egunaren ospakizunarekin; hori dela-eta, Hiesaren aurkako Nafarroako Batzorde Hiritarrarekin eta Sare Elkartearekin batera, ekitaldi bat antolatu du Legebiltzarraren atalondoan asteazkenean, abenduaren 1ean, 13:00etan.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, berrogei urteko epidemiaren ondotik, beharrezkoa da premia duten pertsona guztiei bermatzea GIBaren eta sexu-transmisiozko beste infekzio batzuen diagnostikoa eskuratu ahal izatea. Diagnostiko goiztiarra eta tratamenduari goiz ekitea dira bideirik onenak pertsonen osasuna babesteko eta kutsatzeak prebenitzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak GIBarekin loturiko Diskriminaziorik Ezaren eta Tratu Berdintasunaren aldeko Gizarte Itunak biltzen dituen neurriak bultzatzen jarraitzearen alde egiten du.

4. Nafarroako Parlamentuaren konpromisoa da arreta soziosanitario banakatua bermatzea GIBa duten pertsonen, kontuan hartuz haien berezitasunak, bereziki emakumeen eta adinduen kasuan.

5. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du GIBarekin bizi diren pertsonen diskriminazioa desagerrarazteko neurriak bultzatzen jarraitzeko.

6. Nafarroako Parlamentuak erabaki du bere fatxada abenduaren 1ean gorriz argizatzea.” (10-21/DEC-00071).

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

